

## Komunikaldiak 08: etorkizuneko komunikatzaileak, enplegatzaileen arabera

2008/02/22

Aurten **lehen promozioa** kaleratuko da **Ikus-entzunezko Komunikazioan**. Hori dela-eta, "Etorkizuneko komunikatzaileak" izango da aztergaia aurtengo Komunikaldietan.

Fakultateak erakutsi nahi die komunikatzaile berriei zelan dagoen **lan merkatua komunikazioaren esparruan**. Horretarako, enplegatzaileak etorriko dira, eta azalduko dute, besteak beste, zer ezaugarri eskatzen dizkieten gaur egungo komunikatzaileei.

### Egitaraua

Aurtengo Komunikaldiak **martxoaren 5ean** izango dira, HUHEZIn bertan, Areto Nagusian.

**09:00** Jardunaldiaren aurkezpena

**09:15** Mahai ingurua: "Hedabide tradizionalak XXI. Mendean". Parte-hartzaileak: **Martxelo Otamendi**, Berria egunkariko zuzendaria; **Aritz Agirre**, Euskadi Irratiko albistegietako zuzendaria; **Joseba Iriondo**, kazetaria eta freelance-a komunikazio gaietan.

**11:00** Atsedena.

**11:30** **Luis Fernandez**, CodeSyntax-eko langilea: "Interneteko komunikatzaile profesionala".

**12:05** **Izaskun Ellakuriaga**, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako komunikazio zuzendaria: "Durangoko Azokan ikusten ez dena"

**12:40** Galdera-erantzunak

**13:00** Bazkaria

**15:00** Mahai ingurua: Fikzioaren egoera ikus-entzunezkoetan. Parte-hartzaileak: **Asier Altuna**, zineko teknikari, gidoilari eta zuzendaria; **Itxaso Atutxa**, 3Koma produktorako zuzendari ordea; **Arri Granados**, K2000ko Eduki Departamentuko zuzendaria eta *¡Pásalo!* programako zuzendari eta ekoizle exekutiboa; **Itziar Mena**, EIKEN Ikus-entzunezko Klusterreko zuzendaria

### Zelan izena eman

**Izena emateko epea:** Martxoaren 3a. Izena emateko bidali ordainagiria eta mezua helbide honetara: [sarrera@huhezi.edu](mailto:sarrera@huhezi.edu)

**Matrikula 25 €** (ikasleak eta langabeak, doan).

